



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: BIOLA

2023-03-02

Nori zuzenduak?

Graduko Biola Interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko otsailaren 23an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Biola interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

PUCHADES, Josep eta TCHITCH, Natalia

10.00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

11:00-11:45 Musikeneko biola ikasleen emanaldia Ireneusz Jagla pianistarekin

12:00-15:30 Natalia Tchich irakasleak eskola irekiak emango ditu hala nahi duten ikasle aktiboentzat

12:00-15:30 Josep Puchades irakasleak eskola irekiak emango ditu hala nahi duten ikasle aktiboentzat

15:45 Jardunaldiaren amaiera

Biola jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Marta Moll Hari Departamentuko buruarekin: dpto.cuerda@musikene.net